# ARTEA IKASBIDE
# APRENDIENDO A TRAVÉS DEL ARTE

**2018-19**



## Artea ikasteko erreminta gisa

Arteari buruz elkarrizketan jarduteak eta artista baten eskutik sortze-prozesuan parte hartzeak aukera ematen die lehen hezkuntzako neska-mutilei curriculumeko gaiak ezohiko modu batean lantzeko.

Ikasle askok hobeto ikasten dute ikaskuntza-prozesua aktiboagoa denean eta hautatzeko aukera gehiago dutenean. Programa honetan galderak egiten dituzte, jakin-mina pizten zaie, ideia iradokitzaile berriak aztertzen dituzte eta deskubritzearen zirrara sentitzen dute.

Proiektu bakoitza bakarra da, parekorik gabea, eta pertsonalizatua dago; modu irekian diseinatu da, eta egin ahala berregokituz joan da parte-hartzaile bakoitzaren trebetasunekin eta interesekin ahal beste bat etortzeko. Prozesuak inprobisazioari leku egitea dakar askotan, jolasari, esplorazioari, ikerketari, esperimentazioari, eta baita akatsari berari ere. Ikasleek abiatzen duten prozesu artistikoak pentsatzera bultzatzen ditu, baloratzera, aukeratzera, probatzera, duda egitera, ondo pasatzera, galtzera, blokeatzera, eta, nola ez, erratzera ere bai ez baitago hutsegiterik gabeko aurrerapenik.

Babeslea | Patrocina

**Hezkuntza eta Interpretazio Zuzendariordetza**
**hezkuntza@guggenheim-bilbao.es**

## AURKIBIDEA

Erakusketa

Artistak

Proiektuak

Elkartrukea

# ÍNDICE

Exposición

Los artistas

Los proyectos

Intercambio

GUGGENHEIM BILBAO

## El arte como herramienta de trabajo

Dialogar sobre arte y participar en el proceso creativo de la mano de un artista permite a los escolares de Primaria abordar los temas curriculares desde una perspectiva diferente.

Muchos escolares aprenden mejor cuando el aprendizaje es más activo y cuando hay mayores posibilidades de elección. En este programa se hacen preguntas, se despierta la curiosidad, se exploran nuevas ideas inspiradoras y se experimenta la emoción de descubrir.

Cada proyecto es único y está personalizado, ha sido diseñado de forma abierta y redirigido sobre la marcha para ajustarse lo máximo posible a las habilidades e intereses de cada persona. A menudo implica dar espacio a la improvisación, al juego, la exploración, la investigación, el experimento y el error. El proceso artístico en el que los estudiantes se embarcan les lleva a pensar, valorar, elegir, probar, dudar, divertirse, perderse, bloquearse y, por supuesto, errar, ya que sin error no hay avance.

**Subdirección de Educación e Interpretación**
**hezkuntza@guggenheim-bilbao.es**











Ikasturtearen amaieran azken pausura iritsi gara: sortze-prozesua eszenaratzea. Erakusketak amaiera borobila ematen dio prozesu artistiko orori: sortutakoa hauteman eta hartzera iristen da publikoa, eta itxi egiten da zikloa.

Uda oro gertatzen den bezala, obraz beteko da Museoko Hezkuntza gela. Aurten, ekainaren 18tik irailaren 15era bitartean egongo da erakutsitako obrak ikusteko aukera, eta lanak sekzio ezberdinetan egongo dira banatuta: ***Letrak***, non hizkuntza, hiztegia eta idazkera izan diren funtsezko parteak; ***Birziklapena eta kontsumoa***, gai horiei buruzko hausnarketaren fruitu diren obrak biltzen dituena; ***Mapak, arkitekturak eta natura***, non espazio desberdinetako aireko bistak, ibilbideak eta maketak jasotzen diren; eta ***Argazkiak eta filmak***, paisaiak eta pertsonak, *stop motion* animazioak, performanceak eta bestelako sorkuntzak biltzen dituena.

Ikasleek erakusketaren inaugurazioa gerturatzeko aukera izango dute, prozesuaren parte izan diren irakasle eta artistekin batera. Beren lanak Museoan emozioz betetako urte baten amaiera ekarriko die ikasleei, eta autoestimu- eta aitortza-bultzada ahaztezina izango da askorentzat.

Cuando termina el curso, llega la puesta en escena del proceso creativo. En todo desarrollo artístico, la exposición pone el broche final: el público percibe y recibe lo creado, y el ciclo llega a su término.

Como cada verano, el Espacio educativo del Museo se llena de obras. En esta ocasión, entre el 18 de junio y el 15 de septiembre, el público podrá contemplar las obras expuestas, presentadas en varias secciones: ***Letras***, en la que el lenguaje, el vocabulario y la escritura han sido parte fundamental; ***Reciclaje y consumo***, que engloba distintas obras fruto de la reflexión en torno a estos temas; ***Mapas, arquitecturas y naturaleza***, que incluye vistas de pájaro, recorridos y maquetas de diferentes espacios; y ***Fotografías y películas***, que reúne paisajes y personas, animaciones *stop-motion,* performances y otras creaciones.

Los escolares tienen la oportunidad de asistir a la inauguración de esta muestra, junto a sus profesores y los artistas que han trabajado con ellos. Ver sus obras expuestas en el Museo es la culminación de un año de emociones; supone una inyección de autoestima y de reconocimiento que muchos no olvidarán.

## ERAKUSKETA
## EXPOSICIÓN



## IÑAKI GRACENEA

Herria eta hiria, adierazpena eta esperientzia, iradokitzaile denetik egiturazko denera. Gure gertuko ingurunetik aldendu gara inguruan daukagun amaigabetasuna hauteman ahal izateko, eta berriz gerturatu gara ñabardura txikiak oharkabean pasatzen ez uzteko. Bizipenak partekatu ditugu, esperientzia komunetan aurkitu dugu elkar; horri esker, ideia horiek zenbait obratan irudikatzeko aukera izan dugu, agerikoa denetik, formala denetik abiatuta.

El pueblo y la ciudad, representación y experiencia, de lo evocador a lo estructural. Nos hemos distanciado de nuestro entorno para observar la infinidad que nos envuelve y nos hemos aproximado para no descuidar los pequeños matices. Hemos compartido vivencias, nos hemos encontrado en las experiencias comunes y eso nos ha permitido traducir esas ideas desde lo aparente, desde lo formal, en diversas obras.



## ZALOA IPIÑA

Programa honen ezaugarriei esker, ikasleek hobeto ulertzen dituzte gai jakin batzuk, ikusmolde libreago eta, era berean, konplexuagoaren bitartez. Saioen jarraikortasunak gai berari buruzko aldaeren inguruko hausnarketa egiten lagundu digu, ariketak errepikatu, aldatu edo probatzeko aukera eman digu, akatsak egiteko eta lanaren bilakaera osoa ikusteko aukera. Ikasleek denboraldi batean zehar proiektu batean lan egiten ikasi dute, gaur egun neurriz kanpo baloratzen den bat-batekotasuna alde batera utzita. Ikasleek sortzeko forma berriak ikasi dituzte, eta eurak izan dira forma berri horietan iniziatiba hartu behar izan dutenak.

Las características de este programa ayudan al alumnado a comprender ciertos temas a través de un enfoque más libre y a la vez complejo. La continuidad de las sesiones nos ha ayudado a indagar sobre las variantes de un mismo tema; nos ha dado la posibilidad de repetir, variar o probar ejercicios, de errar y de ver la evolución de todo el trabajo. El alumnado ha aprendido a trabajar en un proyecto a lo largo de un período de tiempo, dejando a un lado la inmediatez tan sobrevalorada actualmente. Los escolares han descubierto nuevas formas de crear, con las que han tenido que tomar iniciativas propias.



## NEREA LEKUONA

Gertuko inguruneko objektuei ikusmolde artistikotik begiratzen ikasi dute, eta, horrela, aukera berriak aurkitzen ikasi dute ustez halakorik ez dagoen lekuetan. Eskola eremuko materialekin lan egin dugu: liburuen forruak, errotuladoreak, erregelak, mapak, eta abar; ezagun zaizkien objektuak, funtsean. Hala, sortzerako orduan kontzeptuak duen garrantzia ikasi dute. Teknika desberdinak ikasi eta praktikan jarri ondoren, erakusketa osatu duten piezak sortu ditugu. Atsegin handia izan da sortze-prozesu honetan ikasleen aldamenean egotea, erakutsi duten jarreragatik, eta, batez ere, irakasleen inplikazioagatik.

Han aprendido a mirar los objetos de su entorno más cercano con visión artística y, de esta manera, han sido capaces de encontrar oportunidades donde aparentemente no las hay. Hemos trabajado con materiales del ámbito escolar: forro de libros, rotuladores, reglas, mapas..., objetos con los que están familiarizados; de esta manera, han descubierto la importancia del concepto a la hora de crear. Después de aprender y practicar varias técnicas, hemos generado las diferentes piezas que se incluyen en la exposición. Ha sido una auténtica delicia acompañarles en este proceso creativo gracias a su disposición y, sobre todo, a la implicación del profesorado.



## KARLOS MARTÍNEZ BORDOY

Eskolara itzultzea oso esperientzia bitxia eta positiboa izan da. Taldean lan egin dugu (ikasleek, irakasleak eta nik neuk) boikotaren, esperimentazioaren eta akatsaren ideiei lotutako dinamiketan. Gure erantzun propioetara heltzea izan dugu xede, erantzun horien gaineko balio-iritzi gehiegizkorik eman gabe. Hala, esperientziari berari jarraikiz, kontzeptu konbentzionalak gainditzea lortu dugu eta geure buruari galdetu diogu dakiguna nola frogatu dezakegun.

La vuelta al cole ha sido una experiencia muy curiosa y positiva. Hemos trabajado grupalmente (los alumnos, el profesor y yo mismo) en dinámicas vinculadas con la idea de boicot, lo experimental y el error con las que hemos pretendido llegar a nuestras propias respuestas, sin mayor juicio de valor sobre ellas. Así, dejándonos llevar por la experiencia, hemos logrado superar conceptos convencionales, preguntándonos acerca de cómo saber demostrar lo que sabemos.



## MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA

Haurrekin lan egiteak hizkuntza eta diskurtso artistikoa egokitzea eskatzen du. Egiten duguna kontzeptu berberekin baina beste hitz batzuk erabilita erakusten saiatzeak berak oso aberasgarri eta bizigarri bihurtzen du prozesua. Hasiera batean konplexua dirudien edozein gai erraz bilakatzen da hitz egokiak aurkituz gero. Haurrek duten esperimentazio plastikorako gaitasuna jaiotzatikoa da. Hizkuntza plastikoa, margotzea, modelatzea jolasa dira haurrentzat.

Trabajar con niños requiere un acondicionamiento del lenguaje y del discurso artístico. Este proceso se vuelve una experiencia rica y estimulante solo por el hecho de intentar mostrar lo que hacemos con otras palabras, pero los mismos conceptos. Cualquier tema a priori complejo se vuelve fácil encontrando las palabras adecuadas. La capacidad de experimentación plástica en la infancia es innata. Para el niño, el lenguaje plástico, dibujar, modelar, es un juego.



## JORGE RUBIO

Irudimena ez da ihesbide soila; motor boteretsua da, sormenaren beraren iturria; adierazpenerako, komunikaziorako, norberaren ezagutzarako eta eraldaketarako daukagun erreminta baliotsuenetakoa; gu guztion parte izan dadin zaindu eta hedatzen segi behar dugun erreminta. Izan ere, ez du mundua aldatuko, agian, baina bai aldatuko dituela hura eralda dezaketen pertsonak. Jakintzat ematen dugu existitu egin behar dela, garrantzitsua dela, oinarri-oinarrizkoa; eta, hala ere, ukiezina da, gobernaezina, eta ia aurreikusi ezinekoa: sormenak gizarte honen parte izan behar du, baina askotan, eraginkorra ez denez, inertzia hutsez bizi gara.

La imaginación no solo es una vía de escape, es un motor poderosísimo como fuente de la creatividad misma; es una de nuestras herramientas más valiosas de expresión, comunicación, autoconocimiento y transformación, que debemos cuidar e ir ampliando, para que forme parte de todos nosotros, porque no cambiará el mundo, pero sí cambiará a las personas que pueden hacerlo. Damos por hecho que debe existir, que es algo importante, básico; y, sin embargo, es intangible, ingobernable y poco o nada predecible: la creatividad debe formar parte de esta sociedad, pero muchas veces, debido a su inoperancia, se puede vivir por inercia.



## IXONE SÁDABA

Nola eraikitzen ditugu gure identitatea eta gure bereizgarriak taldearen parte izateari utzi gabe? Haurtzarotik nerabezarorako pausua prozesu konplikatua da, gauza asko uzten baititugu atzean gauza berrietara irekitzeko, eta ez beldurrik gabe gainera. Barakaldoko Munoa ikastetxeko ikasle taldearekin egindako lanean geure buruak begiratu ditugu, eta gure ingurunea aztertu dugu; eta prozesu horretan, gure ingurua deskubritzearekin batera, New Yorkera ere gerturatu gara! Geure buruak marraztu eta asmatu ditugu. Landa-koadernoak sortu ditugu eta, kamera analogikoen bitartez, batak bestea erretratatu dugu. Gure familiak eta gure ingurunea ere hartu ditugu argazkitan. Eta antzekotasunak eta desberdintasunak, biak ala biak gozatu ditugu.

¿Cómo vamos construyendo nuestra identidad, nuestras diferencias, sin dejar de formar parte y de reconocernos en el grupo? El paso de la niñez a una edad adolescente es un proceso complicado, en el que dejamos atrás muchas cosas y nos abrimos a otras nuevas, no sin miedos. Este curso nos hemos observado a nosotros mismos y a nuestro alrededor, y en ese proceso no solo hemos descubierto nuestro entorno, ¡sino que nos hemos asomado a Nueva York! Nos hemos dibujado y nos hemos inventado. Hemos creado cuadernos de campo y nos hemos retratado con cámaras analógicas, hemos fotografiado también a nuestras familias y nuestro entorno. Y hemos disfrutado tanto de nuestras similitudes como de nuestras diferencias.



## IBON SÁENZ DE OLAZAGOITIA

Ikasleen sortze-gaitasunak eta irudimena estimulatzea; segurtasun-gabezia eta askatzeko beldurra kentzea; haiek ere artista potentzialak direla sinestaraztea... jakina baietz! Guzti horri bidea egingo dioten baldintzak sortu baino ez dira egin behar, eta *Artea ikasbide* programak hori bera ahalbidetzen du. Gasteizko Paula Montal ikastetxeko 5. mailako ikasleak izan dira esperientzia bikain honen zorioneko protagonistak. Ikastetxeko curriculum-programa zorrotzean parentesi bat aurkitu behar izan dugu gauzatu ahal izateko, baina uste dugu esperientziak merezi izan duela. Atsegin handia ematen du emaitzak ikusteak.

Estimular las capacidades creativas y la imaginación de los escolares; despojarles de la inseguridad y del miedo a soltarse; convencerles de que ellos también son artistas en potencia... ¡claro que sí! Solo es cuestión de que se den las circunstancias que lo permitan, y el programa *Aprendiendo a través del arte* lo propicia. Los chicos y chicas de 5º curso de Paula Montal, en Vitoria-Gasteiz, han sido los afortunados protagonistas de esta magnífica experiencia. Ha sido necesario encontrar un paréntesis en el exigente programa curricular del centro para hacerlo posible, pero consideramos que la experiencia ha merecido la pena. Resulta muy gratificante comprobar los resultados.



## MANU URANGA

Tailer hauetan, erabakigarria izan da material eta teknika ezberdinak haurrekin praktikan jartzea, artearen inguruko aurreiritzietan erori gabe. Sormen-praktikak berak ahalmen harrigarria du itxuraz ezkutuan dauden gai eta kontzeptuak azaleratzeko, baita egunerokotasunean oharkabean pasatzen diren kezka zein motiboak ere. Modu horretan ekiten diogu lanari, elkarrekin martxan jarri eta berriz ikasteko, jada dakigunetik abiatuta.

Halako jarduerek haur bakoitzari arreta berezia eskaintzea eskatzen dute, baina ezinbestekoak dira haien sormen-gaitasunak gizarte osasuntsuago baten partaide izatera eraman ditzan, eta hura eraldatzeko gai izan daitezen. Hori ere gure esku dago.

En estos talleres, ha sido determinante utilizar materiales y técnicas diferentes a los habituales y no caer en ideas preconcebidas sobre el arte. La práctica creativa tiene la asombrosa capacidad de sacar a la luz temas y conceptos aparentemente ocultos, así como preocupaciones y razones que en el día a día pasan desapercibidas. Empezamos a trabajar con estas premisas, para aprender juntos, partiendo de lo que ya sabemos.

Este tipo de iniciativas requieren dedicar una atención especial a cada alumno, pero resultan vitales para que su capacidad creativa les lleve a ser parte de una sociedad más sana, que ellos mismos puedan contribuir a cambiar. Esto es algo que está en nuestras manos.

# ÁNGELES CUSTODIOS

## Hizkuntza eta identitatea

## Lenguaje e identidad





**Bilboko Ángeles Custodios ikastetxeko 6. mailako 24 ikasle**
**Irakaslea: Esther Vilarino**
**Artista: Jorge Rubio**
**Hizkuntza: euskara**

Hizkuntzaren eta identitatearen arteko lotura ezagutzeko eta hizkuntza-aniztasuna aukera eta aberastasun gisa ulertzen laguntzeko, zenbait ekintza artistiko definitu ziren, eta ekintza horiek ikasleen gaitasun kritikoa sendotzeko helburua ere bazuten.

Euskaraldia ariketa kolektiboak luzatutako proposamenak eraginda, ikasleek ahoak, sudurrak eta belarriak berrinterpretatu eta birsortu zituzten buztina baliatuta, Euskaraldiak berak ahoak eta belarriak sinbolo hartuta euskaraz hitz egiteko eta entzuteko gonbita egiten baitzuen. Buztinezko piezak paisaian egindako esku-hartze bilakatu ziren ikastetxearen inguruetako murru, horma eta zuhaitzekin mimetizatuta, bertatik pasatzen ziren ibiltariak ustekabean harrapatuz.

Aurpegiak tristura, haserrea, mina, poza, beldurra eta bestelako emozioak adierazteko duen gaitasunaz hausnarketa egiteko ere proposatu zitzaien. Hala, beren gorputzak naturako pigmentuz eta elementuz apaintzen zituzten antzinako tribuak eta zibilizazioak inspirazio-iturritzat hartuta, ikasleek beren aurpegiak margotu eta fotografiatu zituzten, aurpegiera ezberdinekin.

Gehien hitz egiten diren hizkuntzen nagusitasunaren aurrean galtzeko arriskuan dauden hizkuntza minorizatuen defentsarako ezkutu sinbolikoak ere sortu zituzten. Kultura desberdinetako imajinarioetako izakiak irudikatzeko erronka ezarri zitzaienean, eskola-umeek oihalez eta kartoiz egindako panpina handi bat fabrikatu zuten: testuingururik gabeko irudi bat, unibertso magiko batetik aterea eta egunerokotasuneko ingurura ekarria.

#IkustekoBesteModuBat#HizkuntzaMinorizatuak
#Identitatea#Fantasia







**24 escolares de 6º curso del Colegio Ángeles Custodios, Bilbao**
**Profesora: Esther Vilarino**
**Artista: Jorge Rubio**
**Idioma: euskera**

Para explorar la relación entre lengua e identidad y percibir la diversidad lingüística como oportunidad y riqueza, se definieron una serie de acciones artísticas que implicaban también potenciar la capacidad crítica del alumnado. Influidos por la propuesta social de Euskaraldia, que invitaba a hablar y escuchar en euskera mediante el uso de símbolos como bocas y orejas, los escolares reinterpretaron y recrearon en barro distintos órganos: bocas, narices y orejas. Las piezas de barro se convirtieron en intervenciones en el paisaje, que se mimetizaron con muros, paredes y árboles en los alrededores del colegio, sorprendiendo a los viandantes.



Se sugirió también analizar la capacidad del rostro para expresar emociones, como la tristeza, la ira, el dolor, la alegría, el miedo... Inspirándose en tribus y civilizaciones antiguas que adornaban sus cuerpos con pigmentos y elementos de la naturaleza, los escolares pintaron y fotografiaron sus caras, llenándolas de expresividad. También crearon escudos simbólicos en defensa de lenguas minoritarias, en peligro de extinción ante la supremacía de los idiomas más hablados. Ante el reto de representar seres del imaginario de distintas culturas, la clase fabricó un gran muñeco de tela y cartón, una figura descontextualizada, sacada de su universo mágico y llevada al entorno cotidiano.

# OtraFormaDeVer#LenguasMinoritarias#Identidad
#Fantasía

"Bilboko Ángeles Custodios ikastetxeko ikasleek libre sentitzeko espazio edo momenturen bat aurkitu izana espero dut ikasturtean zehar garatu ditugun jarduera denen artean; espazio bat, momentu bat, non aurrez existitzen ez diren pentsamenduak agertu zaizkien, edo irudi berriak sortu zaizkien, bihar-etzi sentsazio hori antzematen jakin eta berreskura dezaten".

"Espero que este año los alumnos del Colegio Ángeles Custodios de Bilbao hayan encontrado, entre las muchas actividades que hemos desarrollado a lo largo del curso, un espacio, un momento, en el que sentirse libres, donde hayan fluido pensamientos que antes no existían, o se hayan formado imágenes nuevas para que el día de mañana intenten reconocer esa sensación y recuperarla".

—Jorge Rubio, artista

# DEUSTO

## Eguneroko matematikak

## Matemáticas cotidianas








**Bilboko Deusto ikastetxeko 5. mailako 26 ikasle**
**Irakasleak: Begoña Bergasa eta Eskarne Mardaras**
**Artista: Zaloa Ipiña**
**Hizkuntza: euskara**

Matematikek egunerokotasunean duten presentzia izan zen programa honen abiapuntua. Horri helduta, matematikak liburuetako zenbakiak baino zerbait gehiago direla ulertu zuten ikasleek, hau da, bizitzako aspektu askotan funtsezko lekua hartzen dutela forma anitzetan. Ikasturte hasieran, ikasleek argazkiak atera zizkieten beren inguruan ikusten zituzten matematikei: zenbakiak, lerro paraleloak, angeluak, bolumenak, forma geometrikoak, perspektibak, eta abar, eta abar. Errealitatetik ateratako irudietatik abiatuz, paisaia matematiko berriak sortu zituzten lerroz, formaz eta segidaz betetako collagetan logika formalak aplikatuta.

Papiroflexia-teknikak erabilita, tamaina eta kolore desberdinetako poliedroak sortu zituzten, eta gero bizia eman zieten. Normalki bizigabeak izaten diren poliedroak animatzeak aukera eman zien sekuentzia eta segida bisual zein formalekin azelerazioa eta dezelerazioa lantzeko.

#HaratagoIkustea#EgunerokoMatematikak
#PoliedroAnimatuak





**26 escolares de 5º curso del Colegio Deusto, Bilbao**
**Profesoras: Begoña Bergasa y Eskarne Mardaras**
**Artista: Zaloa Ipiña**
**Idioma: euskera**

El punto de partida de este programa fue la presencia de las matemáticas en el día a día, en lo cotidiano. Así, el alumnado comprendió que las matemáticas no son solamente números en un libro, sino que en sus múltiples formas ocupan un lugar fundamental en muchos aspectos de la vida. Los escolares comenzaron el curso captando, a través de fotografías, las matemáticas que veían a su alrededor: números, líneas paralelas, ángulos, volúmenes, formas geométricas, perspectivas y un largo etcétera. Partiendo de las imágenes tomadas de la realidad, crearon nuevos paisajes matemáticos, aplicando lógicas formales en collages llenos de líneas, formas y patrones.

Con técnicas de papiroflexia, plegaron poliedros de diferentes tamaños y colores, a los que, a continuación, dieron vida. La animación de estos poliedros, normalmente inertes, los llevó a trabajar con secuencias y patrones, visuales o formales, la aceleración y la deceleración.

#VerMásAllá#MatemáticasCotidianas#PoliedrosAnimados










“Oso ongi pasatu nuen argazkiak ateratzen, batzuetan alderantzizko mundu bat sortzen delako... Poliedroak egiten, 3D animazioarekin eta lantaldean ere oso ondo pasatu nuen. Kuboa egitea izan zen errazena, eta oktaedroa zailena. Orain etxean saiatzen naiz poliedroak sortzen. Arteak beti laguntzen dit beste gauza batzuk egiten”.

—Deusto ikastetxeko ikaslea

“Lo pasé muy bien sacando fotografías, porque a veces surge un mundo al revés... también haciendo poliedros, la animación 3D y el trabajo en grupo. Lo más fácil fue realizar el cubo y lo más difícil, el octaedro. Ahora intento crear poliedros en casa. El arte siempre me ayuda a hacer otras cosas”.

—Escolar de Deusto

# PAULA MONTAL

## Elikadura osasuntsua

## Alimentación saludable







**Gasteizko Paula Montal ikastetxeko 4. mailako 25 ikasle**
**Irakaslea: Inma Íñiguez de Ciriano**
**Artista: Ibon Sáenz de Olazagoitia**
**Hizkuntza: euskara**

Elikadura osasuntsu eta jasangarriari buruzko sormenezko hausnarketa ekarri zuen proiektu honek. Gertuko produktu osasuntsuak edukiko lituzkeen fikziozko elikadura-marka bat sortzeko proposatu zitzaion taldeari. Proiektuaren fase desberdinek prozesu demokratiko bat ekarri zuten: ikasleek akordioak lortu behar izan zituzten produktuak hautatzeko, izenak aukeratzeko, logotipoa eta etiketak diseinatzeko, paketatzea erabakitzeko, eta marka ezagutzera emateko publizitate-kanpaina prestatzeko. Horretarako ezinbestekoa izan da interes, talentu eta izaera desberdineko ikasleen elkarlana, eta haien arteko elkarrekintza.

Prozesua ikasketa bilakatu zen, eta gai anitzi buruzko hausnarketa eragin zuen: tipografiak, diseinua, jakien irudikapena artearen historian, elikagaien piramidea.... Prozesua modu dinamikoan eraman zen aurrera, sortze-jokoen eta ariketa irekien bidez; horiei esker, ikasleek aukera izan zuten esperimentatzeko, huts egiteko eta asmatzeko, ideiak biribiltzeko, ebaluatzeko eta zehazteko. Eta bidean ustekabeko aurkikuntza irudimentsuak egin zituzten: elikagai-collageak, *stop motion* teknikaz egindako bideoak, elikagaien prototipoak, eta azukrearen aurkako superheroiak ere bai.

#MarrazketaErradikala#Animazioa#ElikaduraOsasuntsua
#MarkaBatenSorrera









**25 escolares de 4º curso del Colegio Paula Montal, Vitoria-Gasteiz**
**Profesora: Inma Íñiguez de Ciriano**
**Artista: Ibon Sáenz de Olazagoitia**
**Idioma: euskera**

Este proyecto supuso una reflexión creativa sobre la alimentación saludable y sostenible. Se propuso al grupo crear una marca de alimentación ficticia cuyos productos fueran cercanos y sanos. Las diferentes fases del proyecto supusieron un proceso democrático que implicó llegar a acuerdos sobre la selección de los productos, la elección de nombres, el diseño de logotipos y etiquetas, el empaquetado y, finalmente, la elaboración de una campaña de publicidad para dar a conocer la marca. En este proceso ha sido indispensable la colaboración de los alumnos con diferentes intereses, variedad de talentos y temperamentos, así como la interacción entre ellos.

El proceso supuso un aprendizaje y una reflexión sobre múltiples cuestiones relativas a las tipografías, al diseño, la representación de la comida en la historia del arte, la pirámide alimentaria.... Para ello, se trabajó de forma dinámica a partir de juegos creativos y ejercicios abiertos, que permitieron a los escolares experimentar, errar y acertar, pulir, evaluar y concretar, realizando hallazgos imaginativos inesperados, como collages alimentarios, vídeos en *stop motion*, prototipos de alimentos e, incluso, superhéroes antiazúcar.



#DibujoRadical#Animación#AlimentaciónSaludable #CreaciónDeUnaMarca



# SAN IGNACIO

## Natura begiratzeko moduak

## Miradas a la naturaleza









**Gasteizko San Ignacio ikastetxeko 6. mailako 16 ikasle**
**Irakaslea: Mikel Garmendia**
**Artista: Karlos Martínez-Bordoy**
**Hizkuntza: euskara**

Artea natura-zientziekin bateratzeak bigarren ikasgai hori jolasaren bidez berraurkitzea ahalbidetzen du, eta hura ulertzeko ikuspegi berriak eta dibertigarriak eskaintzen ditu. Zientzia-gaiak eta natura-inguruneko fenomenoak ikuskera original batetik aztertzeko asmoarekin jaio ziren tailer hauek, inguruan dugun mundua hobeto ulertzeko saiakeran: nola ikusten du liztor batek? Zerk egiten du landare bat landare?

Saiakuntza eta akatsa ikasteko tresna gisa hartuta, animalien eta landareen bizitzak eta horien habitatak arautzen dituzten legeei buruzko ikuskera berriak bilatu ziren. Sorkuntza-jolas azkarrek —adibidez, begiak itxita marrazteak edo mugimenduan marrazteak—, tabuak gainditzea eta sortze-prozesuak desblokeatzea ahalbidetu zuten.

Metodologia zientifikoa eta arte-sorkuntza uztartzeak uzta oparoa eman zuen: inoiz ikusi gabeko espeziez osatutako fauna asmatuaren bilduma ilustratua, naturan gertatzen diren mugimenduen *flip-book* edo liburu animatua, landareetan oinarritutako eskultura harrigarriak, *post-it* bidez sortutako habitatak, paisaia eraldatzen duten koloreak, animalia flotatzaileak eta animalien edo intsektuen ikusteko modu desberdinak erakusten dituzten kaleidoskopioak.

#IkusiBegiratuEtaBehatzea#EgindakoariBalioaEmatea#Birpentsatzea#Animaliak#ZerIzanDaitekeHau#HaratagoIkustea#Flipbook#ZuzenduGabe#IkustekoBesteModuBat

"Karlosek materiala eta lanak baloratzen irakatsi zigun. Artean gauza on eta txarrik ez dagoela ere irakatsi zigun"

—San Ignacio ikastetxeko ikaslea

"Karlos nos enseñó a valorar el material y los trabajos. También nos enseñó que en el arte no hay nada bueno ni nada malo".

—Escolar de San Ignacio







**16 escolares de 6º curso del Colegio San Ignacio de Vitoria-Gasteiz**
**Profesor: Mikel Garmendia**
**Artista: Karlos Martínez Bordoy**
**Idioma: euskera**

Combinar el arte con las ciencias naturales posibilita el redescubrimiento de esta última asignatura, mediante el juego y el hallazgo de otras miradas, frescas y divertidas. Estos talleres nacieron con la pretensión de analizar cuestiones de ciencias y fenómenos del mundo natural desde puntos de vista originales, en un empeño por entender mejor el mundo que nos rodea: ¿Cómo ve una avispa?, ¿qué hace que una planta sea una planta?

Partiendo del experimento y del error como herramientas de aprendizaje, se buscaron nuevas visiones sobre las leyes que rigen la vida de los animales y las plantas, y de sus hábitats. Los juegos creativos rápidos, como dibujar con los ojos cerrados o en movimiento, permitieron superar tabúes y desbloquear procesos creativos.

La metodología científica, combinada con la creación artística, sirvió para idear un animalario ilustrado de una fauna inventada con especies nunca vistas, un *flip-book* o libro animado de los movimientos de la naturaleza, sorprendentes esculturas inspiradas en plantas, hábitats generados con *post-its*, colores que modifican el paisaje, animales flotantes y caleidoscopios que muestran las diferentes formas de ver de los animales o los insectos.

#VerMiraryObservar#DarValoraALoRealizado
#Repensar#Animales#QuéPuedeSerEsto#VerMásAllá
#Flipbook#NoDirigido#OtraFormaDeVer



# MUNOA

## Talde bat, ikuskera anitzak

## Un grupo, miradas diversas








**Barakaldoko Munoa ikastetxeko 6. mailako 24 ikasle**
**Irakaslea: Eneritz Leniz**
**Artista: Ixone Sádaba**
**Hizkuntza: gaztelera**

11–12 urterekin oso interesgarria suerta daiteke identitate pertsonala eraikitzeko, norbanakoen desberdintasunak balioan jartzeko eta, aldi berean, talde bateko kide sentitzeko lanei ekitea. Mota horretako ariketa artistikoei esker, ikasleek beren biografiaz hausnartzeko aukera izan zuten, nortzuk diren pentsatzeko, zer atsegin duten, bizi diren tokia nolakoa den, eskola, familia…. Prozesuan emozioak, konfiantza eta talde-lana nahastu ziren.

Hodeietan hautematen diren irudiak marraztea irudimenezko ariketa librea da, eta agerian uzten ditu indibidualtasun desberdinak eta horien ikuskera anitzak, denak ere baliozkoak direnak. Desberdintasun horiek dira taldea aberasten dutenak. Landa-koadernoa eta argazki-kamera eskutan hartuta, gertuko ingurua aztertu zuten ikasleek, beren komunitatearen funtsa ulertzeko xedez. Gero, fotografiatutakoari eta ikusitakoari buruzko oharrak jaso zituzten, benetako zientzialariak balira bezala. Bakoitzaren ikuskerak taldeko ikuskerarekin bat egin zuen guztien ekarpenekin egin zuten inguruari buruzko mural handian. Gatazkak konpontzen joan ziren, autoestimuak sendotzen, eta taldea kohesionatzen: bete dugu helburua!

#IkustekoBesteModuBat#EgindakoariBalioaEmatea
#ZerIzanDaitekeHau#Emozioa

**24 escolares de 6º curso del Colegio Munoa de Barakaldo, Bizkaia**
**Profesora: Eneritz Leniz**
**Artista: Ixone Sádaba**
**Idioma: español**

Puede resultar muy interesante acometer con 11 y 12 años tareas como construir la identidad personal, valorar las diferencias individuales y reconocerse al mismo tiempo en un grupo. Estos ejercicios artísticos ofrecieron a los escolares la oportunidad de reflexionar sobre su biografía, pensar en quiénes son, qué les gusta, cómo es el lugar en el que viven, su colegio, su familia.... Las emociones, la confianza y el trabajo en grupo son tres aspectos que se entremezclaron en el proceso.

Dibujar las figuras que se adivinan en las nubes es un ejercicio libre e imaginativo que evidencia también las distintas individualidades y sus diversas miradas, todas ellas igualmente válidas; estas diferencias constituyen la base de la riqueza de un grupo. Tomando un cuaderno de campo y una cámara de fotos, estudiaron su entorno cercano, con la finalidad de captar la esencia de su comunidad, y anotaron cada una de las impresiones sobre lo fotografiado y lo observado como auténticos científicos. La mirada personal se unió a la colectiva en un gran mural sobre el entorno elaborado con las aportaciones de todos. Los conflictos se fueron superando, la autoestima se reforzó y el grupo se cohesionó: ¡objetivo cumplido!

#OtraFormaDeVer#DarValorALoRealizado
#QuéPuedeSerEsto#Emoción





# SAN JOSÉ

## Hiriak eta herriak

## Ciudades y pueblos








**Donostiako San José ikastetxeko 5. eta 6. mailetako 22 ikasle**
**Irakasleak: Karmele Mitxelena eta Lourdes González**
**Artista: Iñaki Gracenea**
**Hizkuntza: gaztelera**

Herria eta hiria alderatuta —bien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak, bi espazioetako formak eta egiturak—, ikasleek aspektu arkitektonikoa ikertu zuten, baina baita arlo soziala ere, toki horietan dauden antolakuntza-sistema desberdinak eta bakoitzean indarrean diren kulturak.

Etxea hartu zuten abiapuntutzat, hirietako eta herrietako elementu komuna den heinean. Irudizko etxeen egiturak eraiki ondoren, ikuspegia aldatu eta sortutako eraikinak eskultura habitagarriak balira bezala begiztatzeko erronka luzatu zitzaien ikasleei. Hiri ideala, irudizkoa, oraindik gauzatu ez den hura nolakoa izango litzateken hausnartu zuten. Ikasle bakoitzak bere arkitektura-prototipo propioa eraiki zuen eta gero, denen artean, *skyline* delakoa edo hiriaren profila osatu zuten, hiri-sarea eta eraikin altuenak erakusten dituen bista, alegia. Prozesuan zehar, ikasleek ulertu zuten silueta horien atzean bertan bizi diren pertsonak daudela, komunitateak, toki berean bizi diren eta elkarren artean harremanak dituzten taldeak. Arkitekturak, askotan, elkarrekin nahasita bizi diren kulturak biltzen dituen komunitatea hartzen du bere baitan. Ikasleek ikusi ahal izan zuten nola, hirietan, naturaren estetika kopiatzeko saiakera egiten den forma organiko eta geometrikoak erabilita, esate baterako, molde eta ereduen bidez errepikatzen eta kopiatzen diren fraktalak.

#EspazioaAldatzea#EskulturaHabitagarriak#Skyline
#NaturaEtaHiria

"Esperientzia guztiz aberasgarria izan da, eta ikasleak ikaskuntza-prozesuaren parte aktibo egin ditu"

—Karmele Mitxelena eta Lourdes González

"La experiencia ha sido enriquecedora a todos los niveles, y ha convertido a las alumnas y alumnos en parte activa de su proceso de aprendizaje"

—Karmele Mitxelena y Lourdes González







**22 escolares de 5º y 6º curso del Colegio San José de Donostia/San Sebastián**
**Profesoras: Karmele Mitxelena y Lourdes González**
**Artista: Iñaki Gracenea**
**Idioma: español**

Comparando el pueblo y la ciudad, sus semejanzas y diferencias, las formas y estructuras de ambos espacios, los escolares exploraron, además de lo arquitectónico, también lo social, los distintos sistemas organizativos y las culturas establecidas en estos lugares.

Como punto de partida, se tomó el concepto de casa, elemento común de ciudades y pueblos. Tras fabricar unas estructuras de casas imaginarias, se planteó a los escolares el desafío de cambiar el punto de vista y contemplar sus construcciones como esculturas habitables. Reflexionaron sobre cómo sería la ciudad ideal, imaginaria, aquella que todavía no se ha materializado. Cada alumno creó su propio prototipo de arquitectura y todos juntos formaron el *skyline* o perfil de la ciudad, una vista en la que se aprecia el entramado urbano y los edificios más altos. En el proceso, los estudiantes comprendieron que detrás de esas siluetas hay personas que habitan el lugar, comunidades, grupos que coexisten y se relacionan. La arquitectura aloja a menudo una comunidad donde cohabitan las culturas entremezcladas. Los escolares observaron también cómo en las ciudades se intenta a veces reproducir la estética de la naturaleza mediante el uso de formas orgánicas y geométricas, como los fractales, repetidos y copiados a través de moldes y patrones.

#CambiarElEspacio#EsculturaHabitable#Skyline
#NaturalezaYCiudad



# ZORROZA

## Egin eta desegin

## Hacer y deshacer











**Bilboko Zorrotza ikastetxeko 4. mailako 24 ikasle**
**Irakaslea: Arantza Ayala**
**Artista: Manu Uranga**
**Hizkuntza: euskara**

Egin eta desegitea, berrerabiltzea, behatzea, erabilera berriak ematea.... Birziklatzea pausu bat harago eraman daiteke, eta baita hainbat pausu harago ere. Prozesuan zehar, ikasleek zakarretik ateratako gauzen testurak eta formak aztertu zituzten, eta gero probak egin zituzten horiekin. Hala, aukera mugagabeak izan zituzten materialen eta objektuen formak, koloreak, bolumenak eta jatorriak arakatu eta horientzako erabilera berriak planteatzeko.

Ariketa desberdinak proposatu zitzaizkien, esaterako, argazkiak eta oihalak baliatuta collageak egitea, edo papera eta ehunak erabilita bustoak sortzea. Ariketa horien bidez, soilak diren baina erabilera anitzak dauzkaten materialekin libreki esperimentatzeko aukera izan zuten ikasleek. Horretarako, etiketak irakurri behar izan zituzten, gauzak zerekin eginda dauden ulertu, eta material bakoitza nondik datorren jakin: zein den, adibidez, poliesterraren, artilearen edo kotoiaren jatorria. Objektuen memoriaz edo aztarnaren kontzeptuaz ere hausnartu zuten: objektuek badute memoriarik? Eta materialek?

Ikasleek, gainera, inguruko industria-paisaia eta paisaia naturala alderatu zituzten, azken hori hondartzara bisita bat eginda. Itsasoak jaurtitako hondakinak eta naturako elementuak alderatu zituzten hondartzan aurkitutako objektu anitz eta iradokitzaileekin egindako eskulturen bitartez.

#Osaketa#IkusiBegiratuEtaBehatzea#ZerIzanDaitekeHau
#ZuzenduGabe#Birpentsatzea#BirziklatzeErradikala







**24 escolares de 4° curso del Colegio Zorroza de Bilbao**
**Profesoras: Arantza Ayala**
**Artista: Manu Uranga**
**Idioma: euskera**

Hacer y deshacer, reutilizar, observar, dar nuevos usos.... El reciclaje puede ser llevado un paso o, incluso, varios pasos más allá. Este proceso —por el que se analizaron las texturas y las formas de lo rescatado de la basura, y con ello se hicieron pruebas— brindó a los escolares infinitas oportunidades de explorar las formas, los colores, los volúmenes y el origen de los materiales y los objetos, con el fin de plantear nuevos usos.

Se propusieron varios ejercicios, como la realización de collages con fotografías y tela o la creación de bustos de papel y tejido, entre otros, que permitieron la libre experimentación con materiales sencillos, pero con usos múltiples. Para ello, hubo que leer las etiquetas, entender de que están hechas las cosas y de dónde procede cada material: cuál es el origen del poliéster, de la lana o el algodón. También reflexionaron sobre la memoria de los objetos o el concepto de huella: ¿tienen memoria los objetos?, ¿y los materiales?

Además, los escolares compararon el paisaje industrial que les rodea con el paisaje natural (mediante una visita a la playa). Se confrontaron los residuos traídos por el mar y los elementos de la naturaleza en esculturas realizadas a partir de los diversos y sugerentes objetos encontrados en la playa.

#Composición#VerMirarYObservar#QuéPuedeSerEsto
#NoDirigido#Repensar#ReciclajeRadical





"Artista sentitu dira ikasleak, eta artearen aurrean modu irekiagoan ikusi dituzte beren buruak. Artearekiko beldurra galdu dute emaitzak lortzeko gai sentitu direlako. Artearekiko gertuko harremana eraiki dute jolasaren bitartez".

—Arantza Ayala

"Se han sentido artistas y se han visto a sí mismos ante el arte de una forma más abierta. Se han quitado el miedo al arte, porque se han sentido capaces de lograr resultados. Han construido una relación de cercanía con el arte a través de lo lúdico".

—Arantza Ayala

# SANSOMENDI

## Letra anitzak

## Letras diversas








**Gasteizko Sansomendi ikastetxeko 6. mailako 25 ikasle**
**Irakasleak: Idurre Ayerbe eta Iñaki Larrañaga**
**Artista: Nerea Lekuona**
**Hizkuntza: euskara**

Hizkuntza, pentsatu, arrazoitu eta komunikatzeko baliabide izateaz gain, arte-sorkuntzarako erreminta gisa erabili zen tailer hauetan. Alde batetik, ikasleei kartelen, iragarkien edo Interneten bidez iristen zaizkien mezuak aztertzen laguntzea zen helburua; bestetik, erremintak eskaintzea, informazio horren aurrean iritzi pertsonala garatzen laguntzeko. Gustu estetikoan hezi eta ikasleei artelanez gozatzeko gonbita ere luzatu nahi izan zitzaien, artistak eta beren obrak ezagutu, begiratu eta deskubritzeko aukera izateko.

Helburu horrekin, kaligrafia, letra marraztuak, itzalak, familia tipografikoen forma eta pisuak (edo lerroen lodiera) eta beste elementu batzuk aztertu zituzten, eta euskarri desberdinetan idatziz esperimentatu zuten. Plastiko handi baten gainean hizkuntza desberdinetako (kalo hizkuntza, arabiera, hizkuntza afrikarrak…) izen eta hitzak trazatu zituzten ikasleek. Horrekin bilkari bat sortu zuten, proiektore bati lotutako arrabol-sistemari esker horman proiektatzen zena film bat balitz bezala birarazita. Bideo bat ere sortu zuten, haientzako garrantzitsuak ziren *tag*, etiketa, hitz edo mezuekin, eta aniztasunaren mapa original bat sortu zuten egun inguruan elkarrekin bizi diren kultura desberdinetatik jasotako datuekin.

#Tagak#IkustekoBesteModuBat#LetraEderrak
#PentsamenduKritikoa















**25 escolares de 6º curso del Colegio Sansomendi de Vitoria-Gasteiz**
**Profesores: Idurre Ayerbe e Iñaki Larrañaga**
**Artista: Nerea Lekuona**
**Idioma: euskera**

El lenguaje, además de servir para aprender a pensar, razonar y comunicarnos, se empleó en estos talleres como herramienta de creación artística. Se pretendía así, por un lado, ayudar a los escolares a analizar los mensajes que les llegan a través de carteles, anuncios o internet; y, por otro, darles herramientas para desarrollar una opinión personal ante esta información. También se perseguía educar el gusto estético e invitar a los estudiantes a disfrutar de las obras de arte, a conocer, mirar y descubrir a los artistas y sus obras.

Con ese fin, analizaron la caligrafía, las letras dibujadas, las sombras, las formas y los pesos (o grosor de los trazos) de las familias tipográficas..., y experimentaron escribiendo en diferentes soportes. Sobre un gran plástico, los escolares trazaron nombres y palabras en diversas lenguas (como caló, árabe, lenguas africanas...), con los que elaboraron un rollo que se podía proyectar sobre la pared gracias a un sistema de rodillos acoplado a un proyector, que lo hacía rodar como si de una película se tratara. También crearon un vídeo con *tags*, etiquetas, términos o mensajes importantes para ellos, y generaron un original mapa de la diversidad con los datos recabados sobre las diferentes culturas que conviven actualmente en su entorno.

#Tags#OtraFormaDeVer#LetrasBonitas#PensamientoCrítico






"Gauza asko egin dugu Nerea Lekuonarekin. Asko ikasi dugu, baina gai bat interesatu zaigu bereziki: berdintasuna. Artearen bidez, denak berdinak garela eta eskubide berberak dauzkagula landu dugu. Zortekoak gara gure gelan eta eskolan beste kultura batzuk dauzkagulako".

—Sandomendi ikastetxeko ikaslea

"Hemos hecho muchas cosas con Nerea Lekuona. Hemos aprendido mucho, pero hay un tema que nos ha interesado especialmente: el de la igualdad. A través del arte, hemos trabajado que todos somos iguales y tenemos los mismos derechos. Nos sentimos privilegiados por que haya otras culturas en nuestra clase y en la escuela".

—Escolar de Sansomendi

# SASOETA-ZUMABURU

## Kontsumo jasangarria

## Consumo sostenible











**Lasarte-Oriako Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko**
**3. mailako 20 ikasle**
**Irakaslea: Rebeka Medina**
**Artista: Manu Muniategiandikoetxea**
**Hizkuntza: euskara**

Birziklapena eta kontsumo jasangarria izan ziren lanerako ardatzak, ikusmolde artistikotik abiatuta. Kolektiboari, galkorrari, ekintzari eta inguru publikoari buruzko gaiak ere atera ziren. Proiektu guztietan saiatu zen hondakinik ez sortzen, beharrezkoa zena baino ez kontsumitzen eta ahal bezain gertuen fabrikatutako materialak erabiltzen, behar ez zen erregairik ez xahutzeko.

Prozesuak ikerketa- eta hausnarketa-lan kontzeptuala suposatu zuen, besteak beste honako galderei erantzuna emateko saiakeran: zer da kontsumoa? Eta kontsumo jasangarria? Zer kontsumitzen dugu? Eta nola? Ikasleek zerrendak egin zituzten gosaltzen dutenarekin, bazkaltzen dutenarekin, erabiltzen dutenarekin, eta abarrekin. Mapa batean kokatu zituzten produktu horien jatorriak, eta balio berezia eman zieten gertutik zetozenei. Gai horien inguruan arteak eta artistek dauzkaten proposamenak ere aztertu zituzten.

Ikasleek zuhaitzak kimatzetik sortutako adarrak erabili zituzten orekan mantentzen zen egitura bat fabrikatzeko oinarri gisa. Euskarri natural birziklatu horren gainean hainbat elementu eseki zituzten, hala nola, beste artista batzuen lanak eta beste ikasle batzuek utzitako obrak; horrela, lan kolektiboa eta berrerabilpena sustatu zituzten, *readymade* artistikoaren estiloan. Objektuek bizi berria izan dezaketela ulertu zuten ikasleek, funtzio berriak eman ahal zaizkiela eta berriz balioan jarri daitezkeela. Hori horrela, elkarri lotuta adarretatik eseki zituzten irudiz, arropaz, moldez, egutegiz eta mapamundiz osatutako ekosistema bat sortu zuten neska-mutilek, kontsumoaren eta naturaren artean egon beharko litzatekeen oreka irudikatuz.

#Birpentsatzea#ZuzenduGabe#KilometroZero
#PentsamenduKritikoa#HondakinikGabe#Oreka







**20 escolares de 3er curso del Colegio Sasoeta-Zumaburu, Lasarte-Oria**
**Profesora: Rebeka Medina**
**Artista: Manu Muniategiandikoetxea**
**Idioma: euskera**

El reciclaje y el consumo sostenible, enfocados desde una perspectiva artística, fueron los ejes del trabajo. Surgieron también cuestiones sobre lo colectivo, lo efímero, la acción y el entorno público. En todos los proyectos se intentó no generar residuos, consumir solo lo necesario y utilizar los materiales fabricados lo más cerca posible para no gastar carburantes innecesarios.

El proceso supuso un trabajo conceptual de investigación y reflexión que pretendía responder a cuestiones como: “¿Qué es el consumo?” “¿Y el consumo sostenible?” “¿Qué y cómo consumimos?”. Los escolares elaboraron listas de lo que desayunan, comen, utilizan, etc., y situaron sobre un mapa los lugares de donde vienen esos productos, valorando la importancia de los procedentes de un entorno próximo. Además, analizaron las propuestas del arte y los artistas sobre estos temas.

Las ramas resultantes de las podas de los árboles sirvieron a los escolares como soporte para fabricar una estructura en equilibrio. Sobre este soporte natural reciclado colgaron múltiples elementos, entre ellos trabajos de otros artistas y obras prestadas por otros alumnos, potenciándose así el trabajo colectivo y la reutilización, al estilo del *readymade* artístico. Los escolares entendieron que los objetos pueden tener una nueva vida, otorgándoles nuevas funciones y revalorizándolos. Así, se generó un ecosistema de dibujos, ropas, moldes, calendarios y un mapamundi, atados entre sí y colgados de las ramas, representando el equilibrio deseable entre el consumo y la naturaleza.

#Repensar#NoDorigido#KilómetroCero
#PensamientoCrítico#SinResiduos#Equilibrio





# BILBAO–NEW YORK

## Hain urrun eta hain gertu

## Tan lejos y cerca





**Queens auzoko Public School 144 ikastetxeko 3. maila eta Barakaldoko Munoa ikastetxeko 6. maila**
**Irakasleak: Lori Diamond, Jurdana Gonzalez, Eneritz Larrabaster eta Sarai Redondo**
**Artistak: Jeff Hopkins eta Ixone Sádaba**
**Hizkuntza: ingelesa**

Bi ikastetxetako —Barakaldokoa bata eta New Yorkekoa bestea— ikasleek mezu elektronikoak idatzi zizkieten elkarri sei astez. Beren arte-proiektuei buruzko informazioa eta argazkiak partekatu zituzten, eta ingurune bietako berezko ezaugarriei eta puntu komunei buruzko informazioa ere bidali zioten elkarri. Esperientzia horren bidez ingelesezko idazmena sendotu zuten ikasleek, eta modu praktikoan ikusi zuten hizkuntza zeinen erabilgarria den lagun berriekin komunikatzeko. Lagun berriok oso ezberdinak al dira? Urrunekoak? Agian ez horrenbeste.








**3er curso del Public School 144 de Queens y 6º curso del Colegio Munoa de Barakaldo**
**Profesoras: Lori Diamond, Jurdana Gonzalez, Eneritz Larrabaster y Sarai Redondo**
**Artistas: Jeff Hopkins e Ixone Sádaba**
**Idioma: inglés**

Los escolares de dos colegios, uno de Barakaldo y otro de Nueva York, se cartearon por correo electrónico a lo largo de seis semanas. Intercambiaron información y fotografías de sus proyectos artísticos, y compartieron información sobre lo característico y lo común en ambos entornos. Con esta experiencia, reforzaron la expresión escrita en inglés, comprobando de forma práctica la utilidad del idioma en la comunicación con nuevos amigos, ¿muy diferentes?, ¿muy lejanos? Quizá no tanto.






Barakaldo eta Queens-en arteko mezu-trukaketaren zati bat:

"Gure proiektu artistiko handia bukatzen ari gara Jeff jaunarekin. Gaur margotu egingo ditugu, eta gure zapata-pertsonaiak prest egongo dira Guggenheim Museoko erakusketarako. Oso ondo gelditu dira. Jeff jauna ilustratzailea da, bineta dibertigarriak marraztea gustatzen zaio, eta aiten txiste mordoa egiten du, haur txiki baten aita delako. Kontatu Ixone Sádaba zuen artistari buruzko gauzak, eta kontatu zertan ari zareten orain".

"Zuen galderari erantzunez: Ixone Sádaba argazkilaria da eta erretratuak egiten ditu; berak eszenario politiko moduan definitzen ditu. Elkartruke honen inguruko mural handi bat ari gara prestatzen, eta bertan eskegiko ditugu gure eskutitzak, Jeff Hopkins eta Ixoneri buruzko informazioa eta argazkiak, eta zuei buruz kontatu dizkiguzuen beste gauza batzuk".

Extracto del intercambio de mensajes entre Barakaldo y Queens:

"Estamos terminando nuestro gran proyecto artístico con Mr. Jeff. Hoy añadimos la pintura y nuestros zapatos-personajes estarán listos para la exposición en el Museo Guggenheim. Han quedado genial. Sobre Mr. Jeff, es ilustrador, le gusta dibujar viñetas divertidas y hace un montón de chistes de padre, porque es padre de una niña pequeña. Habladnos sobre vuestra artista, Ixone Sádaba, y contadnos en qué estáis trabajando ahora".

"Respondiendo a vuestra pregunta, Ixone Sádaba es fotógrafa y suele hacer retratos que ella describe como escenarios políticos. Estamos preparando un gran mural sobre este intercambio, donde colgaremos nuestras cartas, fotos e información sobre Jeff Hopkins e Ixone y otras cosas que nos habéis contado sobre vosotros".

GUGGENHEIM BILBAO

Babeslea
Patrocina